

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bakioko Udala****Bakioko hondartzan surf klaseak eskaintzeko baimenak emateko deialdia (iragarkia 28/01/05 Bakio).**

Bakioko Udaleko Alkate andreak behean zehaztutako egunean eman du honako:

Alkatetzaren Dekretua.—Bakioko hondartzako erabilera erregimena arautzen duen udal ordenantzaren bidez (2016an aldarazia), Bakioko Udalak lizentziak ematea arautu du, Bakioko hondartzan surf eskolak eskaini ahal izateko.

Lizentzia horiek emateko prozedura aldarazia izan da ordenantzak eskabideak aurkezteko ezarritako epeari dagokionez; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Mugarte Sailak ezarri du jarduera hori denboraldiko zerbitzu gisa aurkeztea 2018ko otsailaren 28an baino lehen.

Hori dela eta, udalak lizentzia eskabidea aurkezteko epea zabalduko du, surf eskolak emateko; deialdi hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den alkatetzaren dekretu bidez egingo da.

Aurrekoarekin bat etorritik, alkatetza honek indarreko legezko xedapenek ematen dizkioten ahalmenak erabiliz, honako hau erabaki du:

Lehena: Bakioko hondartzan surf eskolak eskaintzeko lizentziak emateko prozedurari hasiera ematea deialdi publiko bidez, betiere Bakioko Hondartza Erabiltzeko Erregimena arautzen duen Ordenantzak ezarritakoarekin bat etorritik.

Bigarrena: Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena: Behin Bakioko hondartzan eskolak emateko lizentzia lortu ondoren, baimendutako eskolek justifikatu beharko dute enpresak helburu horri begira kontratatutako laguntzaile guztiek natur eremu akuatikoetan lehen sorospenak emateko ziurtagiri profesionala dutela (40 h.); era berean, aurkeztu beharko dute sexu izaerako deliturik ez dutela egin ziurtatzen duen egiaztagiria. Gainera, hilero-hilero langile guztien Gizarte Segurantzaren TC2 modeloa aurkeztuko da, baimendutako enpresa bakoitzaren afiliatuak egiaztatzeko.

Laugarrena: Surf eskolak emateko lizentzia baimendu ostean, surf eskolek Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertz Mugarte Sailak ezarritako kanona ordaindu beharko dute.

Bosgarrena: Iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

AURKARATZEKO BIDEAK

Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak bere 52.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da administrazio bideari behin betiko amaiera ematen dion egintza honen kontra (29/1998 Legearen 25.1. artikulua eta 39/2015 Legearen 123.1. artikulua) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Bilboko Auzitegian; hori egiteko epea bi hilabetekoa izango da (29/1998 Legearen 46.1. artikulua), jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.



Hala ere, aipatutako errekurtsio judizialari ekin aurretik, berraztertze errekurtsioa jarri ahalko zaio egintza ebatzi duen organoari berari (39/2015 Legearen 123.1. artikulua) hilabeteko epean (39/2015 Legearen 124.1. artikulua), jakinarazpen hau jaso eta biharramunetik zenbatzen hasita. Kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, harik eta berraztertze errekurtsioa ebatzi edo haren presuntziorik ez espina izan arte (39/2015 Legearen 123.2. artikulua); ez espina hori halaxe gertatzen da hilabete igarotzen denean ebazpena jakinarazi gabe (39/2015 Legearen 124.2. artikulua).

Bakion, 2018ko urtarrilaren 22an.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraiazarra